


# BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 222. alea - 2017ko urria



## Dena prest Deba-Reus topaketa burutzeko



**URDAITEGIA  
AITTOLA  
HARATEGIA**

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA

**LENTZERIA**




**MERTZERIA**

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA




**MAXI BAR**

Lersundi, 28  
Tel.: 943 191 206  
Deba (Gipuzkoa)



**ZALBURDI**

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03



**GENOVEVA**  
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818



**Bar LOREA**

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

**17/18**  
CURSO IKASTURTEA  
Matrikula epea ZABALIK  
Plazo de matriculación ABIERTO



**UDAL EUSKALTEGIAK**  
euskarako klaseak - clases de euskara  
www.udaleuskaltegiak.eus



**17-18 IKASTURTEA**

**Ikastaroak**

- Aurrez aurrekoak: 4 egun astean
- Autoikaskuntza Internet bidez
- Ikastaro bereziak (enpresak, AISA, merkatariak eta ostalaritza)
- Perfilak (Administrazioa, Osakidetza, Hezkuntza, ...)
- HABEren 1., 2., 3. eta 4.mailak
- EGA

16 urtetik gorakoentzat  
Langabetu, ikasle eta gurasoek, **MATRIKULA ERDIA**  
Ikastaro amaieran **BEKAK** denentzat.  
(Baldintzak betez gero)  
Informa zaitetz Udal Euskaltegian!

DEBA: 15:00-19:00  
DEBABA UDAL EUSKALTEGIA  
Ifar kalea, 12 - Tel.:943 192 236

# AURKIBIDEA

04

## GUTUNAK

“Emakumea eta kartzela”, “San Roke egunean, Debatik propio aldentuta”...

08

## EUSKAL JAIA

Aurtengo Euskal Jaiaren errepassoa egiten duen irudi bilduma

10

## KRONIKA

Polentzi Markiegiren fusilamenduaren 80. urtemugan egindako ekimenen kronika

12

## ALBISTEAK

Bi debar Basque Ultra Trail Series zirkuituan, Debasket, Debako nesken pala txapelketa...

14

## B. GAZTEA

Eskolara buelta, elkarrizketa Jokin Lasari, inkesta, denbora-pasak...

## Mintzalagun egitasmoaz gain, Gurasolagun ekimena ere abiatu nahi dugu

“Hartu, eman, eragin”. Lelo horrekin abiatu da aurten Mintzalagun egitasmoa Euskal Herrian. Deban, egitasmoan izena emateko epea zabalik dago eta talde bat martxan jarri da jadanik.

Dakizuen bezala, euskaraz hitz egiteko erraztasuna duten pertsonak eta mintzapraktika egin nahi dutenak biltzen dituen programa da Mintzalaguna. Ekimenean parte hartzeko baldintza bakarra euskaraz komunikatzeko gai izatea eta astean ordubetez batzeko konpromisoa hartzea da (Mintzalaguna doan

da). Urrian kanpaina abiatu ostean, azaroan talde berriak sortzeko erronkari helduko diogu. Interesa izango bazenu, deitu 943191383 telefono zenbakira edo idatzi [koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com) helbidera. Izena emateko bi aukera daude aurten: Zuhatza elkartearen bulegotik zuzenean pasata, edo internet bidez bestela, <https://labur.eus/zuhatza> helbidean.

Era berean, mintzalagunen ohiko dinamikaz gain, bestelako saiakera bat ere egingo dugu ikasturte honetan. Herrian zenbait gurasok euskaraz jarduteko edota norbere euskara hobetzeko agertu duten interesa kontuan hartuta, euskaraz aritzeko guraso taldeak osatzen saiatuko gara, *Gurasolagun* izeneko dinamikaren bitartez –eta betiere gurasoen ordutegi eta ohituretara moldatuz-. Datozen asteotan zabalduko dugu ekimen berri honetan parte hartzeko aukera ere.

Bien bitartean, jarrai dezagun herrian euskaraz bizitzen!

*Zuhatzako Mintzalagun taldea*

### BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea  
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:

[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)

Elkartearen e-maila:

[koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com)

### ARGITARATZAILEA



### LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

### Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkartea

### Erredakzio taldea eta kolaboratzaileak:

Nagore Dorronsoro, Xabier Laka, Ina Oiartzabal, Koldo Aperribai, Lukax Dorronsoro, Izaro Aulestiarte, Ibon Urkia, Maite Rodriguez, Gilen Garcia, Eider Zulaika, Idoia Gereñu, Goizane Aizpurua, Haika Aizpurua, Nekane Goikoetxea, Mattin Urbieta, Mikel Aizpurua, Errima Frustratuen Kluba, Mendata BHI-ko prentsa tailerra.

**Koordinatzailea:** Izaro Aulestiarte

**Azaleko irudia:** Deba-Reus komisioa

**Publizitatea:** Joseba Escudero eta Koldo Aperribai **Tlfnoa.:** 943 19 13 83

**Logotipoaren diseinua:** Iñaki Elosua **Maketazioa:** Leire Rubio

**Inprimategia:** Euskalinpri


**Tirada:** 1.400 ale

**Lege gordailua:** SS-246-2009

**ISSN** 2171-7656

### OHARRA:

*Berriketan-ek* ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



**Berriketan**-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) edo [koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com).

## Emakumea eta kartzela

Azaroaren 18an, Agirre jauregiko ispiluen gelan, Emakumea eta Kartzelaren inguruko jardunaldia egingo dugu.

Kartzelak zigortzeko prestatuak izan dira; botereak erabakitako talde edo pertsonak zigortzeko. Instituzio bezala pertsonon birgizarteratzea helburu duen arren, hauek suntsitzeko asmatuak izan diren tortura zentro modernoak dira.

Kartzela, sistema kapitalistaren isla den heinean, sistema heteropatriarkal batean oinarritzen da. Asko dira zapalkuntzak; hasteko, espetxearen espazio fisikoa bera gizonezkoentzat pentsatua eta eraikia dago. Bertan egiten diren

ekintzen banaketa ere sexista da; gizonezkoentzako "maskulinoak" diren jarduerak eskaintzen dira eta emakumezkoentzako, berriz, "feminizatuagoak" direnak, adibidez josteta tailerrak.

Emakumeen gorputza objektu bihurtzen da; derrigorrezko biluzteetan, hilero-koarekin daudenean beharrezkoak dituzten konpresa eta tanpoien ukapenean eta abarretan. Kontrolaren aitzakiapean, esku-bide urraketak normalizat hartzen dira.

Beraz, emakume presoen errealitatearen inguruan hausnartzea beharrezkoa ikusten dugu. Helburua Debako herrira errealitate hau hurbiltzea da, honekin instituzio penitentziarioek emakumeengan

eragiten duten jazarpenaren inguruan analisi bat egiteko. Antolatutako jardunaldietan, preso egon diren emakume ezberdinen testigantzak izango ditugu, bi gai nagusi jorratuz: "Sistema penitentziarioa vs kartzela errealitatea" eta "kartzela: generoa eta sexualitatea". Bestalde, dokumental emanaldia, eskutitz irakurketa eta eztabaidarako espazioa izango ditugu, hau guztia bazkari batekin borobilduz.

Hemendik gonbitea luzatu nahi diogu interesa duen edonori. Laster izango duzue egitarau zehatzaren berri.

*Debako Talde Feminista*


## 2017ko jai programa dela eta hainbat ikaskizun:

Abuztuaren hasieran, betidanik eza-gutu izan dugu San Roke Jaien egitaraua eta hau liburuxka batean argitaratzen da, Udalaren babespean.

Liburuxka honetan, jai egunen egitaraua agertzen da eta, honekin batera, baita debarrentzat eta kanpotarrentzat interesgarriak izan daitezkeen iritzi artikulua ere. Gure iritzi, Udalaren babespean kaleratzen den edozein argitalpenek gutxieneko baldintza batzuk bete beharko lituzke, hala nola hizkuntza parekidea, iritzi aniztasuna, euskararekiko errespetua, etab.

2017ko programan azaldu diren hiru artikuluetatik, bat bakarra dago euskaraz idatzita. Beste biak, berriz, erdaraz eta zezenketei buruzkoak dira. Debako jaiak

ez dira soilik zezenak eta hauen inguruan egiten diren ekintzak. Herri kirolak, dan-



tzak, musika, ermitako meza, kuadrillen arteko jolasak,... ere badaude. Gure ustez,

gai hauek guztiek jaien programaren barruan, egunez eguneko egitarauekin batera, euren txokoa izan behar dute.

**Baina akatsetatik ere ikasten da.** Hurrengo urterako debarren nahien aniztasuna islatuko duen Jai Programa nahi dugu. Eta hau ziurtatzeko, parekidetasuna, euskararen presentzia orekatua eta kultur gai desberdinez arduratuko den **batzorde bat sortzea eskatzen diegu gure herriko agintariei.**

Hau ez badugu lortzen, datorren urteko Jai Programaren artikulua zezenketei buruzkoak, erdara "perfektuan" izango ote dira berriro ere? BELDUR GARA!!!

*Itziar Aranberri, Marian Larrañaga eta Jose Luis Albizu*

**ALBIZU**  
HARATEGIA

Lersandi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

**IGARZA**  
TABERNA

Ostolaza, 5  
DEBA  
Tel.: 943 191 197

**IZENBE**

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



## Urriaren 29an abiatuko ditugu ipuin kontaketak

Familia agurgarriok,

Ikasturte berriarekin batera, Debako Kontalariok liburu eta ipuinak miatzen hasi gara, zuekin konpartitzeko asmoz. Aurten ere, hilabetean behin Debako Agirre jauregiko ispiluen gelan izango gara zuekin. Kontaketak euskaraz izango dira eta adin tarte desberdinei zuzendutako bi saio egingo ditugu, denentzat gozagarriak eta ulergarriak izan daitezten.

•3-7 urte bitartekoentzat 17:00etan.

•7-12 urte bitartekoentzat 18:00etan. Aurtengo ikasturtean urriaren 29an, igandean, hasiko gara -eta hurrengo saioa azaroaren 19an izango da-. Gonbidatuta zaudete, beraz, gure kontakizunekin une goxo bat igarotzera.

Informazio gehiago behar izanez gero, bisitatu gure webgunea:

<https://sites.google.com/site/debakokontalariak>

Agur bero bat.

*Debako ipuin kontalariak*



## San Roke egunean, Debatik propio aldentuta

Gipuzkoako hiriburutik idazten dizuet, ene tema gaizto bezain itogarri honetatik nolabait askatzeko. Bihotzak zer esan, hura idatzi. Ze erremedio, ba, bestela?

Zugana, idazlan xume hau irakurtzeko pazientzia duzulako, bideratu nahi ditut ene bihotza eta hitzak. Zugana, ene presentziaz gabetuta jaiak ospatu dituzun debar gizajo hori edo erbestetik herriminez blai eginda zauden beste debar hori.

Primeran bizi zara euskaraz, debarra baitzara. Eta pagotxa horren jabe zara zorionez. Gure arbasoek utzi ziguten altxor preziatu horri indar betea jarritz. Eta hori eskertzekoa da.

Eskertzekoa da, nola ez, euskal giro jatorrean jaiak edo festak ospatzeko parada paregabea izatea. Nik neure baitan irudikatzen zaitut, debar jator hori, santuari zapi gorria jartzeko zeremonia hunkigarri horretan salto eta kanta izerdi patsetan, Salbea entzuten eliza dotorean eserita, danborradaren konpasean Debako martxa

kantatzen ozen, harro eta bizi.

San Rokeren ermitara daraman aldapa nekagarrian gora egiten duzu, santuari gorazarre eta gurtza egiteko. Eta baliteke bidean euskal abesti gogoangarri hau gogora ekartzea: "Ez nekeak, ezta bide txarrak, gora-gora neska-mutilak. Gu euskaldunak gera, Euskal Herrikoak". Eta, neka-neka eginda bada ere, Gernikako arbola santuaren fruitua eman eta zabaldu ahal izango dugu, baita egun ere, mundu zabalean.

Esku-dantza eta aurrekuaren baretasun tradizionala. Plaza zaharrean eta plaza berrian. Eta biharamunaren oinazea pairatzen duzun debar hori tradizioaren xarmaz berpizten zara.

Zezenen zirrara urduria. Entzierroa goizez eta zezenketa arratsaldez. Zezenak tartean izanda, ez zara aspertuko. Musikabandak jotako pasodobleak entzunda alaituko da plaza osoa eta, nola ez, lagun arteko garagardoak eserita edanda poztuko dira batzuk.

Arratsaldeko kalimotxo ere edatea badago. Eta kaleko eta tabernako musikak alaituko du giroa. Eta ferietara joatea? Badago hor ere entretenigarri franko.

Su-festen edertasun miresgarria dastatu eta gero, ez diozu muzin egiten gauaren lilurari. Garagardoa, kalimotxo, gin tonika, A, ze gau pasa gaurkoa! Ongi etorri, egunsentiko diana!

Alabaina, ez da dena edatea izango. Bazkari herrikoia ere ez da faltako. Ezta solasaldi xeble ere atseginak ere. Eta umore ona eta kantatzeko eta barre egiteko gogo.

Eta ez da ahaztu behar umeei zor zaie la protagonismoa, ez al gara gu ere noizbait haurrak izan? Haurraren Eguna da gure herrian tradizio handiko jai.

Oroitzapenak. Edertasunak irauten du oroimenean.

Zoragarriak izan bitez beti Debako jaiak.


*Julio Urkaregi Zendoia*



**AUKERA**  
INMOBILIARIA

[www.aukera-inmobiliaria.com](http://www.aukera-inmobiliaria.com)  
Aukerarik onena!

943 12 13 95



# NEKANE GOIKOETXEA

## Ex libris

Aurtengo zinemaldian ikusi dut *Ex libris: New York Public Library* (<https://www.youtube.com/watch?v=0UsglJmevFM>) izeneko dokumentala. Bertan ageri da New Yorkeko liburutegi publikoaren egungo errealitatea. Liburutegi-sare bat da egiazki, NYeko auzo ezberdinetan barreiatuta dagoena eta guk ezagutzen ditugun liburutegi zein kultur etxeen jardunak batzen dituena: mailateguz gain hitzaldi-zikloak, formazioa, zerbitzu sozialak eskaintzen dira bertan. Liburutegiaren bitartez Frederick Wiseman zinemagileak azaltzen digu gaur egungo New Yorkeko soziologia.

*Ex libris* deitzen omen zaio liburuen hasieran, azalaren barruko lehen orrian gehienetan, jarri ohi zen (liburu jabeak aukeratutako) irudiari. *Ex libris* latinismoak "liburuen artetik" esan nahi du literalki. Hau da noren liburutegikoa den liburua. Irudi heraldikoak, alegorikoak erabili izan dira tradizionalki. Wisemanek ikus-entzunezkoaren bitartez eraiki du bere irudia, New Yorkekoa den zinema-ale honetan estanpatu duena. Bi alderdi azpimarratzen ditu horrenbestez: erakunde publiko baten erabilerak New Yorkeko argazkia ematen digula eta film honen ikuspegia Wisemanena berarena dela, ez egia absolutua. Zuzendari judua dokumentalista handia da.

Gure herrietako liburutegiak aztertuko bagenu zein argazki aterako genioke euskal gizarteari? Nork irakurtzen du? Zer irakurtzen du? Zer eskaintzen zaio herritarri? Nola pentsatzen ditugu liburutegiok? Gizartegintzaren erdigunean ala ertzean daude liburutegiak? Zein leku du bertan ikus-entzunezkoaren kultura garaikideak? Zein politikak gidatzen ditu, merkatuak ala herrigintzak? Ziur nago galderak erantzunda argazki interesgarria izango genukeela.

Wisemanek New Yorkeko gizartean txertatuta dagoen arrazakeria erakusten digu, bazterketa egoera anitzak erakusten dizkigu. Liburutegiko lan-ildo ezberdinen bitartez gizarte justuago baten alde lan egiten duen makinaria ikus dezakegu.

Funtsean kulturaren aldarria egiten du, kultura lehen lerroko tresna politikotzat aurkezten digulako. Pentsa litekeenaren kontra politika egiten dugu gutariko bakoitzak egiten ditugun hautuekin; baita politika instituzionalean dabilenak bere lehentasunekin ere. Aurten Guggenheimek 20 urte bete ditu. Bien bitartean gure gazteek jarraitzen dute Gabriel Aresti nor zen jakin gabe.

Irakaspen handia izaten ari da nazio-estatu baten pean bizi garela dakigun euskaldun askorentzat Katalunya aldetik datorrena. Juduek nola, herri katalanak ere ongi ohi daki zein garrantzitsua den memoria ariketak egitea, kontaketa artikulatzea.

Zortez, hainbat herritarren ekimenez, laster etorriko dira Debara zenbait katalan. Uste dut Katalunya bizitzen ari den momentu politikoa nekez azal litekeela bere praktika kulturalak begiratu gabe. Nik gustura galdetuko nieke bisitariari zein liburu irakurri duten aspaldian, nola antolatzen dituzten collak, zein musika entzuten duten, nolako den ikusi duten azken erakusketa, zer dagoen katalanez karteldegian, egin duten azken ikastaroaren nondik norakoa, TV3n zer ikusten duten, zenbat hizkuntza dakizkiten eta nora bidaiatu duten aspaldian, beren herriko ondarea nola prestigiatzen duten. Guk erakutsi ahal izango diegu Andra Maria elizak biltzen duen ondarea, musikarekiko dugun aspaldiko zaletasuna, zentral nuklearraren kontrako mugimenduaren memoria, XX. mendeko hito historiko nagusiak, Sasiolako Estibalitz eta Tene Mujika idazleen berri eman, Arnoko artadiaren balioa azaldu, zezen-zaletasunaren nondik norakoak gerturatu, udatiarren fenomenoak gudan izan duen eraginaz hitz egin, Pio Baroja Debara etortzen zen garaiko giroa deskribatu, gure bi dantza autoktonoen transmisioa kontatu, baserri izenen toponimia azaldu, kobetako ondarea erakutsi, ofizio tradizionalen berri eman...

Beno, onar dezagun, beharbada liburutegira eraman beharko ditugu jai giroan sartu aurretik. Bizkaitarrak bagina sikiera Guggenheimera doan sartzeko...



## 300dik gora bisitari katalan etorriko dira Deba-Reus topaketara

**Dagoeneko jakina izango duzue, hilaren 27an, 28an eta 29an Deba-Reus topaketa hartuko du gure herriak. Apirilean Reusen egon ondoren, bertan bizitakoak eskertzekotan eta magia hura gure herrira ekartzeko asmotan sortu genuen Deba-Reus komisia. Data finkatuta genuela, ekintzen prestaketari ekin genion, hileko azken asteburua ahaztezina izango delakoan.**



300 bat reustar eta katalan hurbilduko dira elkarretaratze honetara, gure kaleetan barna, aurrez osatutako egitarau oparoaren laguntzaz, bi herrialdeen kultura, politika, folklorea... ezagutu eta hauetaz gozatzeko asmoz.

Ostiralean, hilaren 27an, abiatuko dira gure herrirantz, gaueko ordu txikitant iritsiz. Lehen kontaktuaren ondoren, deskantsatzera bidaliko ditugu kiroldegira, hurrengo eguna festa giro ederrean gozatu ahal izateko indarrak hartzera.

Larunbatean, Aldats pilotalekuan gosaldutako ondoren, tour historikoaz, dantza ikastaroaz, hitzaldi ezberdinez edota gaztetxearen historiari buruzko ekitaldiez gozatu ahal izango dute, bakoitzak berea aukeratu beharko duelarik.

Horrez gain, Debako gazteenek kultura katalana gertutik ezagutzeko parada ederra izango dute, Reustik datozen umeei castella-ak eraikitzen erakutsiko baitiete eta, ondoren, Kolore Anitzen parte-hartzearekin puzgarriez eta jolas ezberdinez gozatu ahal izango

dute debar eta reustar txikienek.

Hauek guztiak amaitu ondoren, zumardian ezarriko den karpan bilduko gara denok, euskal musikaz lagundurik Reusen ohikoa den *bermuta* hartzeko. Eguerdian, plaza berrian Kaxarranka dantzatzeko da eta ondoren, Xiquets de Reusen eskutik, Gizateriaren Ondare Kultural Immaterial kontsideratzen diren castella-en emanaldiaz gozatzeko aukera izango dugu.

Aldats pilotalekura joko dugu ondoren, bertan izango baita bazkari herrikoia. Kanpoko jendeak ez ezik, bertan bazkaltzeko aukera edukiko dugu gainontzeko herritarrok ere.

Arratsaldeko 18:00etan ekingo zaio berriz festari, poteo kulturalaren laguntzaz. Bertan Debako hainbat taldek hartuko dute parte, Dalton's txaranga, Gure Kai dantza taldea, Aitzuri abesbatzak eta Debako Erraldoiek hain zuzen ere. Kataluniako kultura ezagutzeko aukera ere izango dugu arratsaldeko ekintza honetan, *Sageta de Foc*

abesbatza, dantza tradizionalak eta Bouaren eskutik.

Arratsaldeko ekitaldi honi amaiera emateko eta gauaren etorrerarekin batera, *Diablos de Reus*-en su ikuskizunak argituko du plaza zaharra.

Eguna amaitzeko Egurra ta kitto, Vivèrrids eta Dj Bull izango ditugu musika jartzaile zumardiko karpan.

Igandea 29, azken eguna, txorizo eta salda artean hasiko dugu. Topaketari amaiera emateko Anna Gabriel, David Fernandez eta Martxelo Otamendi izango ditugu Kataluniako prozesu independentistari buruzko mahai-inguruan.

Reuseko lagunei agurra eskainiz emango diogu amaiera topaketari.

Eskekerrak eman nahi dizkiegu egun honetan parte hartuko duten eragile zein ostalariei, denon artean ahaztezi-na izango den asteburua bitiztea lortuko dugu eta. Anima zaitetz zu ere! SUA!!

*Deba-Reus Komisia*





## EUSKAL JAIA 2017


Irailaren 30ean ospatu zen Deban aurtengo Euskal Jaia. Goizean goiz hasita, hamarnaka boluntario ibili ziren lanean bazkarirako frontoia prestatzen, eta zazpi talde aritu ziren lehian estalitako pasealekuan marmitako goxoena nork prestatuko. Euri zaparrada ugari izan genituen goiz partean, baina eguerdirako atertu zuen behintzat. Musika, dantzak, talo postua plaza zaharrean... eta 650 bat herritar bildu ziren Zuhatza Euskara Elkarteak Aldats pilotalekuan antolatutako herri bazkarian.

Bazkalostean hanatu ziren sariak (Zuhatzak zozketatutako otar eder bat -bertako produktuekin osatua- eta marmitako lehiaketari dagokion txapela) eta Jon Ostolaza eta Unai Narbaiza trikitilarien arduraren pilotalekuan giroa berotzea. Iluntzean Basajaun taldeak hartu ziren lekukoa plazan, erromeria burututa (gauean bigarren saio bat eskaini zuen taldeak).

Lerro hauen bitartez, eskerrak ematea baino ez zaigu geratzen. Mila esker Euskal Jaian parte hartu duzuen guztioi eta, nola ez, antolaketa lanetan aritu zaretenoi!







# IRAGANA GOGOAN, BERRIRO GERTA EZ DADIN

**Urriaren 15ean bete dira 80 urte Debako alkate genuen Polentzi Markiegi fusilatu zutenetik. Urtemuga hau oroitzeko sortutako lantaldearen ekimenez, egitarau oparoa eskaini da asteotan**

Osoko bilkura berezi batekin abiatu ziren, joan den urriaren 4an, Polentzi Markiegiren fusilamenduaren 80. urtemuga oroitzeko antolatutako ekimenak. Debako Udaltzako adierazpen instituzional bat onartu zuen, lepo betetako pleno aretoan, eta ekitaldi xumea bezain hunkigarria izan zen bertaratutako herritar askorentzat.

Adierazpen instituzional horrek gogoratzen duen bezalaxe –dokumentua [www.deba.eus](http://www.deba.eus) atarian irakur dezakezue–, Markiegi alkate izateagatik eta bere ideiak defendatzeagatik fusilatu zuten tropa frankistek, gerra zibila betebetea zela, duela 80 urte. Gertakari horiek gogora ekarri eta gaitzetsi nahi izan dira orain, bide batez omenaldia eginez garai hartan korporazioa osatzen zuten bestelako kide guztiei ere, “frankistek eskubide guztiak kendu baitzizkieten”. Korporazio kideak, fusilatu

zituzten gainerako herritarrak... ere gogoratzen dira adierazpenean.

Bestalde, euren eginbeharrak bete-teagatik udal langileak zigortzeko hartutako erabakia, 1937ko urtarrilaren 17ko Junta Nazionalarena, ez duela ontzat ematen nabarmendu du Udalak, zigortutako udal langileei eta alde egiteagatik kaleratutako gainontzekoei ere aitorza erakutsiz.

Adierazpena (pergamino estiloan) omendutako biktimen familiei eman zieten udal ordezkariak.

Hurrengo hitzordua urriaren 5ean egin zen, Agirre jauregian. “Lehenengo Eusko Jaurlaritzaren 1936-39” izenburupean, Leyre Arrieta Deustuko Unibertsitateko Historia irakaslea aritu zen hizlari.

Gurseko kanpamendura urriaren 7an egindako egun osoko irteerarekin izan zuen jarraipena egitarauak. EHUko Historia irakasle Josu Chuecaren gidatu

zuen irteera.

Biharamunean, Markiegi eta gerraren biktimen guztiei eskainitako meza nagusia eta lore eskaintza (hilerrian) egin ziren Deban. Eta, urriaren 10ean, berriz, Itziarren –Burugorri gainean– beste hitzaldi bat burutu zen. Ismael Manterola EHUko Arte Ederretako irakasleak “Gernika, argiak eta itzalak” izan zituen hizpide bertan.

Egitaraua urriaren 15ean amaitu zen, egun horretan betetzen baita Markiegiren heriotzaren 80. urtemuga. Ekitaldi instituzionala egin zen zumardian, Markiegi eta eusko gudari guztiei eskainitako oroigarriaren aurrean. Polentziren ibilbidea ez ezik, 1936tik 1938ra bitartean fusilatutako hamahiru herritako beste 19 alkate eta zinegotzi gipuzkoar ere izan ziren gogoan; errepublika espainiarraren kontrako estatu kolpearen eta ondorengo gerraren testuinguruan erail zituzten.



## “Etorkizunari begira, gertatutakoa ezagutzeak txerto modura funtziona dezake”

Urriko egun hauetan, emozioz beteriko une ugari bizi izan ditugu.

Hitzaldi zein ekintza hauekin guztiekin Gerra Zibila jasan zutenen memoria aldarrikatu, Historiaren zurrunbilotik atera eta banan-banan, izen-abizenez, sufritu zuten zapalkuntzaren berri eman nahi izan dugu.

Gursera joan ginenez hunkiturik ikusi genuen gure senideek bizitakoa eta, gure lotsarako, Europa zahar honetan berriro gertatzen ari dena. Gerrak ihesa eta heriotza sortzen ditu, orain dela laurogei urte bezala.

Datorren asteetan Luzaro eskolako seigarren mailakoek kontu hauek guztiak landuko dituzte.

Etorkizunari begira, gertatutakoa ezagutzeak txerto modura funtzionatu dezake, berriro gerta ez dadin.

Belaunaldi berriek nondik gatozen jakin behar dute, norabidea aukeratzekoan baliagarria suertatuko zaielako.

Azkenik, Markiegi taldea osatzen dugunok eskerrak eman nahi dizkizuegu urriaren 4tik 15era bitartean antolatutako ekitaldietan parte hartu duzuen guztiei, denon artean



Polentziri eta gudari guztiei omenaldi herrikoiki bat egitea lortu dugulako.

*Markiegiren fusilamenduaren  
80. urtemugako lantaldea*



*Irudiak: Ander Salegi eta erredakzio taldea*

## Marije Castro eta Igon Mancisidor, Basque Ultra Trail Series zirkuituan

Basque Ultra Trail Series zirkuitua Sheve Peña mendizale tolosar ezagunak 1953. urtean eginiko balentrian oinarritzen da. Peñak oinez eta mendiz lotu zituen Hego Euskal Herriko lau hiriburuak. Gelditu gabe (*non stop*), kuluxka txikiak eginez osatu zuen ibilia, maiatzaren 25 eta 28 bitartean.

*Lau Katedralen Martxa* izena eman zioten ibilaldi horri, Peñak, garaiko espiritu erlijiosoak bultzaturik, meza entzun zuelako hiri bakoitzeko katedraletan, berriro ere ibiliari ekin aurretik.

Sheve Peñak 45 urte zituen orduan eta hilabete luzez jardun zuen ibilaldia prestatzen, xehetasun txikiena ere zainduz: zer lekutatik igaroko zen, non hartuko zuen atsedean, elikadura, nor izango zituen bidelagun, ilargialdiak, etab. Azkenik, maiatzaren 25ean, astelehena, 00:00etan abiatu zen Bilboko Santiago katedraletik.

Bilbotik Donostiara jo zuen, Donostiatik Iruñera, Nafarroako hiriburutik Gasteizera eta Gasteiztik berriro Bilbora. 400 kilometro, 7.400 metro desni-

bel positibo eta ibilian 93 ordu eta 5 minutu egin ondoren (horietatik 66 ordu eta 25 martxa aktiboan), maiatzaren 28an, ostegunetz, mendizale tolosarra Bilboko katedralera arkupeetara iritsi zen atzera.

Pasa den urriaren 6an, Marije Castro eta Igon Mancisidor gaueko 23:00etan abiatu ziren Kontxako badiatik zirkuituko azken proba burutzeko. Ibilbidean Orio, Aia, Urdaneta, Zestoa, Erlo, Elgoibar, Arrate, Trabakua, Oiz, Durango, Mugarra, Elorrio, Arrigorriaga eta Bilbo. 140 kilometroko luzera eta 8000 metro positiboko ibilbide gorabeheratsua.

Igon Mancisidor 9. postuan helmugaratu zen, 20 ordu eta 43 minutuko denborarekin. Marije Castro, berriz, 9. emakumea izan zen, 35 ordu eta 45 minutuko denborarekin.

Agian bi urte barru berriro egongo da Euskal Herriko lau hiriburuak mendiz elkartzeko aukera; hortaz, badakizue, prestatzen hasi!

*Igon Mancisidor*



## Udazkenarekin batera hasten da kirol denboraldia

Udazkenarekin batera hasten da ikasturtea, eta honekin kirol denboraldia. Aurtengo denboraldia berezia izango da, lehen aldiz Debak saskibaloitaldeak izango dituelako lehia federatua. Urtebeteko lanek eman dituzte lehen fruituak: bi talde arituko dira lehian. Alde batetik, nagusien taldea 3. mailan, eta bestetik, parte hartze mailan, kadeteak. Baina ez dira talde bakarrak, nesken taldea ere badagoelako, astearte eta ostegunetan entrenatuz. Bestalde, etorkizuna lantzeko asmotan eta kirolaz gozatzeko asmoz saskibaloit Eskola ere martxan da.

Aipatu bezala, lau talde ezberdin ditugu herrian eta ateak zabalik daude parte hartu nahi duen edonorentzat. Parte hartzeko modu ezberdinak daude: jokatu, entrenatu, animatu, ikusi... Jokatzera animatzen direnentzat entrenamendu saioak honako egunetan dira:

-Nagusien maila mutilak: astelehen eta asteazkenetan, 20:00etatik 21:15era.

-Nagusien maila neskek: astearte eta ostegunetan, 20:00etatik 21:15era.

-Kadeteak eta infantilak neska zein mutil (2002-2005): astearteetan 19:00etatik 20:15era, eta ostegunetan 20:00etatik 21:15era.

-Saskibaloit Eskola (neska zein mutil. 2006-2009): astearteetan 19:00etatik 20:00etara.

Lehenago esan bezala, bi talde dauzkagu lehian aurten, nagusien taldea eta kadeteena. Nagusien etxeko partiduetan ostiraletan jokatu dira 19:30etik aurrera eta kadeteenak, berriz, larunbatetan 17:00etatik aurrera.

Baina Debasketek ez du soilik aurrera egin kirol arloan, zaletuen arloan ere talde txoa sortu da kirol honetaz gozatu eta taldeak animatzeko. **Enbata Laranja** du izena

eta Debasketekin batera **azaroaren 4an egun guztiko egitaraua** antolatu dugu.

-11:30: Argazki herrikoia, taldeak, zaletuak, bazkideak... Animatu eta erakutsi babes taldeari!!!

Ondoren, trikipoteoa saski eta guzti!

-14:30: Luncha eta Barrilada Gaztetxean

Ondoren, kalejira kiroldegira partiduetan ikustera.

-16:00: Gora Behera (Debasket) vs Aloña Mendi (Oñati)

-18:00: Electricidad Perosanz (Debasket) vs Take Coach (Tolosa)

-22:30: Kontzertuetan Gaztetxean

Amaitzeko eskerrak eman nahi dizkizuegu taldearen izenean ekonomikoki, animikoki, edo beste edozein arlotan laguntza eta babes eman diguzuen denoi. Zuek gabe proiektu hau ezinezkoa izango litzateke.

*Debasket Saskibaloit Kluba*

## 25 bikote ari dira lehian Debako nesken VI. pala txapelketan

Irailaren 24an abiatu zen Debako nesken seigarren pala txapelketa, taldeko kide zen Maite Etxeberriari omenaldia egiten dion hirugarrena.

Aurten 25 bikotek eman dute izena (iaz baino bost gehiagok). Horietatik 15 dira Debakoak, baina inguruko herrietatik ere animatu dira txapelketan parte hartzera: Elgoibartik lau, Mutrikitik bost eta Zarautzetik bat.

Txapelketa abenduaren 16an bukatuko da. Nesken arteko partidak Aldats frontoian jokatzeko dira, asteazken arratsaldeetan (18:30etik aurrera) eta igande goizetan.

## Oroimenaren bulegoa azaroaren 3a bitarte egongo da zabalik Agirre jauregian

Debako Udalak jakinarazi du gure herriaren memoria historikoa ikertze-ko eta berreskuratzeko proiektua abiatu duela. Azterlan horrek 42.350 euroko kostua izango du eta aho batez onartu zuen ohiko udal batzarrak.

Azterlan horren helburu nagusia 1936-1945 urte bitartean gertatutako giza eskubideen urraketak ezagutzea izango da, urraketa horietatik ikasteko, horien erreparazioa eta, ahal den neurrian, berriro gerta ez daitezen prebentzio-neurriak hartzeko.

Herriaren memoria historikoa berreskuratzen hastea da asmoa, eta hori gauzatu ahal izateko, funtsezkoa izango da herritarrek horretan esku hartzea, Udalak oso dokumentazio

urria duelako gerrari eta Francoren agintaldiari buruz.

Herritarren parte-hartzea prozesu aktiboa izan dadin, hitzaldiak eta erakusketak antolatzea aurreikusten da -bi hitzaldi burutu dira dagoeneko urrian-. Era berean, oroimenaren bulego bat zabaldu da Agirre jauregiko ispiluen gelan (azaroaren 3a bitarte egongo da zabalik, astelehen eta asteazkenero 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara).

Bertan, 1936-1945 urte bitartean errepresaliak jasan zituzten senideei edo pertsoneri buruzko informazioa eskatu edo emateko aukera egongo da. Informazio gehiagorako: 635 22 22 25 edo [oretegi@aranzadi.eus](mailto:oretegi@aranzadi.eus).

## Kataluniari elkartasuna adierazteko mobilizazioak

Gure Esku Dago mugimenduak deituta, Omnium Cultureko eta ANC Biltzar Nazional Katalaneko presidenteen -Jordi Cuixart eta Jordi Sanchez-askatasuna aldarrikatzeko elkarretaratzea egin zen joan den urriaren 17an Deban. Espainiako Auzitegi Nazionalak fidantzarik gabeko behin-behineko kartzelaratzera ezarri die Cuixarti eta Sanchezi, sedizio delitua leporatuta.

Ez da Deban azken asteotan Kataluniari elkartasuna adierazteko herritarrek burutu duten mobilizazio bakarra. Kataluniako prozesua babesteko edota Espainiako Estatu Katalunian izaten ari den esku-hartzea salatzen elkarretaratzeak eta lapiko jotzeak ere izan dira azken egunotan.



**ITXAS GAIN**  
Taberna  
ITXAS GAIN

*Hondartza ondoan  
Urte guztian zabalik*

Nafarroa Plaza • Tfnoa.: 943 192 576  
20820 DEBA

**ARKATZA**  
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA

**SUKIA**  
Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)

**urlo**  
SERVICIOS INMOBILIARIOS  
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

**API**  
Nº. 379

Higiezin Zerbitzuak  
Aholkularitza  
Higiezin Agentzia  
Komunitateen administrazioa  
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo  
Apartado 3  
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471  
Tel./Fax: 943 192 303  
[urlo@urlosi.net](mailto:urlo@urlosi.net)

**ASKETA, S.L.**

**ERAKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA**

**OFICINAS Y EXPOSICION:**  
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
E-mail: [asketa@telefonica.net](mailto:asketa@telefonica.net)  
[www.asketa.net](http://www.asketa.net)

**ALMACÉN:**  
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

**K21**  
KALITATEA  
Enpresa Registrada Nº 2/05/049  
NIVEL 2

# Berriketan Gartea

2017ko urria  
Mendata BHI-ko Prentsa Tailerlean Sortua

## Eskolara buelta

Eskolako lehen eguna zen eta urduritasuna nabaria zen eskolako ateetan. Ordu bat lehenago... Asko kosta zitzaigun oporrei amaiera ematea eta eskolarako buelta barnertzea. Eskerrak ama nire iratzargailua den, bestela...

Jaiki bezain laster, sukalderrantz abiatu nintzen katilu bat esne eta zerealak gosaltzeko asmoz. Gosaltzen nengoen bitartean, begiak itxi egiten zitzaizkidan loguraren erruz. Gosaldu ondoren, jantzi eta lagunekin geratu nintzen. Goizeko 10:30ak aldera, burumakur eta udaran zer egin genuen gogoratzen, eskolarantz abiatu ginen. Denok batera eskolarako aldapa igotzen hasi ginen, ez genuen gogoratzen zer zen aldapa puska hori igotzea...

Eskolara iritsi bezain laster ohartu ginen zerrendak ez zeudela ikastetxeko atean jarrita. Beraz, gelen aldaketa

egotearen esperantza galdu genuen.

4. mailakoekin batera beheko atean geratu ginen 11:00ak noiz iritsiko zain. Erlojuak 11:00ak jo bezain laster, 3. mailakoak sartu ginen lehenik eta gure gela berrietara presaka sartu



ginen, azkenengo ilara lortu nahian. Denok ez genuen zorte bera izan...

Tutorearen zain geunden bitartean, besteak euren geletan nola zeuden ikustera joan ginen. Azkenean, tutorea iritsi zen eta kurtsoaren funtzionamendua azaldu zigun. Horretarako, dokumentu hauek banatu zizkigun: ikasturtearen egutegia (eskola-egu-

nak eta jai-egunak agertzen dira bertan), ikastetxeko ordutegia, taldeko ordutegia, arloetako irakasleen izenak, ebaluazio egutegia eta abar.

Ikastetxeko ordutegiari dagokionez, irailean eta ekainean jardunaldi

trinkoa edo jarraitua izango dugu, hau da, goizez 8:30etik 14:30ak arte; urritik maiatza bukatu artean goiz eta arratsaldeko ordutegia (8:30-12:45 eta 14:15-16:00) edukiko dugu.

Ikasturte honetan 30 irakasle eta orientatzaile bat ditugu. Aurten 227 ikasle gaude matrikulatuta institutuan, joan den ikasturtean baino 9 gutxiago, 11 ikasgelatan banaturik.

Aurkezpena amaitutakoan, urte osoan baino gehiago kuxkuxeatuz eta txiste txar eta anekdota barregarriak kontatuz, nahi baino lehenago etxera iritsi ginen.

Hurrengo egunean, irailaren 9an, abiatu genuen 2017-18 ikasturtea.

## Ba al zenekien? Bederatzi!

Pertsona batzuek bereziki gustuko duten kolore bat izaten dute: urdina, berdea... Batzuetan, bereziki gustuko duten zenbaki bat ere izaten dute. Batzuei zenbaki bakoitiak gustatzen zaizkie, beste batzuei bikoitiak... Eta, zuri? 9 zenbakia gustuko duzu? Zenbaki berezia da 9a. Ezagutu nahi?

Aukeratu bederatziren multiploa den edozein zenbaki.

Adibidez: 18

Batu zenbaki horren digituak:  $1+8$   
Zein da emaitza? 9. Bitxia, ezta?

Bederatziren multiploa den edozein zenbaki aukeratu eta haren digituak batuz gero, emaitza beti da 9.

Hemen adibide gehiago:

$$45 \quad 4+5=9$$

$$72 \quad 7+2=9$$

Ikus dezagun zer gertatzen den zenbaki handiangoekin. Gogoratu 9aren multiploa izan behar duela. Multiploa zer den oraindik ikasi ez baduzu, eskatu laguntza helduren bati:

$765 \quad 7+6+5=18$ . Emaitzak bi digitu ditu. Batu bi digitu horiek:  $1+8=9$

Eta zenbaki handi-handiekin?

1411578918

$$1+4+1+1+5+7+8+9+1+8=45$$

$$4+5=9$$

Lagunak harritu nahi badituzu, egiezu jolas hau:

"Pentsatu zenbaki bat. Zenbaki horri batu 5. Kendu 2 (mareatu zenbakiak batuz eta kenduz, nahi beste). Egin bider 9. Eta, orain, batu zenbaki hori osatzen duten digituak. Ez esan... baietz emaitza asmatu: 9!!!"

Ona, ezta?

# Jokin Lasa

*“Nahiko lan egin dudala uste dut eta jende gazteari ere aukera bat eman behar diogu”*



**Mendata institutuan irakasle lanetan hainbat urtez aritu ondoren, erretiroa hartzeko ordua iritsi zaio Jokin Lasari. Horregatik erabaki dugu bera elkarrizketatzea.**

## **Zergatik erabaki zenuen irakasle izatea?**

Galdera zaila, gauza asko ez dira erabakitzeak; nire kasuan, batxilergoa bukatu nuenean ikastola egiten ari ziren eta nire herrian, Lazkaon, aipatu zidaten irakasle falta zegoela. Magisteritza ikasi nuen eta erabakitzeko zerbait baino gehiago behar bat izan zen.

## **Zergatik duzu gustuko irakaskuntza?**

Zuek gugandik ikasten duzue eta horretan saiatzen gara, baina guk ere ikasten dugu zuengandik, nahiz eta guk eduki magisteritza ikasketak.

## **Luzeak egin al zaizkizu azkenengo urteak?**

Ez, hasierakoak luzeagoak egin zitzaizkidan. Uste dut esperientziarik ez nuelako izan zela, karrera izan arren praktiketan ikasten baita ondoen.

## **Nola iritsi zinen ikastetxera?**

Debar batekin ezkondu nintzenean Debako ikastolan hasi nintzen eta Mendata gutxi gora-behera 1997an sortu zen. Ikastolako irakasle batzuk hona etorri ginen; horien artean, ni.

## **Noiz hasi zinen irakaskuntzan?**

1980. urtean Deban hasi nintzen. Baina hiru urte lehenago Mutrikun egon nintzen urte batez eta Beasainen bi urtez.

## **Zer oroitzapen eramango dituzu Mendatetik?**

Onak, gustura egon naiz. Normala den bezala, batzuetan beste batzuetan baino hobeto, baina txarrena da hainbeste ikasle pasa eta batzuekin ez gogoratzea.

## **Zer egingo duzu erretiroa hartzean?**

Nahiago dut planik ez egin. Musika gustatzen zaidanez, denbora izanez gero musikaren

munduan jarraituko dut, konposatzen, deituz gero jaialdietan parte hartzen... Irakurtzea ere asko atsegin dut eta atzeratuta dauzkadan liburu guztiak irakurriko ditut. Natura ere gustatzen zait eta mendian ibiliko naiz ahal dudan bitartean. Urte hauetan bidaiatu ez dudana ere bidaiatu nahiko nuke. Eta bi bilobotxo ere badauzkadanez, haiek zainduko ditut...

## **Zergatik hartzen duzu orain erretiroa?**

Berez 65 urterekin jubilatzea behar gara, baina aukera dugu 63 urterekin jubilatzeke. Nik uste dut nahiko lan egin dudala eta jende gazteari ere aukera bat eman behar diogula.

## **Zer ikasi zenuen zuek?**

Magisteritza ikasi nuen Donostiako eta Gasteizko unibertsitateetan.

## **Tratu ona izan duzu ikasle eta irakasleekin?**

Orokorrean bai; batzuekin besteekin baino hobea.

## **Ospakizun berezirik egingo al duzu erretiroa hartzerakoan?**

Beti bezala “despedida” bat egingo dugu, bazkari edo afari batekin. Eta nire tutoretza-koekin ere ospatuko dut “merendola” txiki bat eginez. Nola ez, familiakoekin baita ere.

## **Zure ustez, institutuak ba al du zerbait hobetzeko?**

Ni luzaroan egon naiz institutu honetan, baina kanpotik datozen irakasleek beti esaten dute institutu modeliko bat dela eta, hobekuntzak edukiko dituen arren, institutua ongi dagoela. Nik irakaskuntzari buruzko gauzatxoak aldatuko nizkioke, baita kokapena ere.

Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiet gaur egungo ikasleei, ikasle ohiei eta lan-kide izan ditudan guztiei.

# Inkesta

## Zelan ikusten duzue zuen etorkizuna?

2017-18 ikasturtea abian dago eta Prentsa Tailerreko ikasleok DBH 3. mailako ikasleei zenbait galdera egin dizkiegu, euren etorkizuna nola ikusten duten jakiteko asmoz:

- 1.- Zer ikasteko asmoa duzu?
- 2.- Familia bat osatzea gustatuko litzaizuke? Hala bada, zenbat umerekin?
- 3.- Zure herrian bizi nahiko zenuke ala beste nonbaiten?
- 4.- Ezkonduko zinateke?
- 5.- Non ikasi nahiko zenuke?
- 6.- Zerbañ berezia egiteko ideiarekin bat duzu?
- 7.- Zure betiko lagunekin harremanetan jarraituko duzula uste duzu?
- 8.- Etorkizunean zer aldatuko zenuke orain daukazunarekin alderatuz?
- 9.- Zenbat urterekin independizatuko zinateke?



*Imanol Iciar*

- 1.- Fisioterapia.
- 2.- Bai, bi umerekin.
- 3.- Bai, noski.
- 4.- Bai, elizatik.
- 5.- Eibarren.
- 6.- Urtebetez, Irlandan ikasiko nuke.
- 7.- Noski.
- 8.- Momentuz ezer ere ez.
- 9.- Diru nahikoa daukadanean.



*Jon Ramirez*

- 1.- Ez dakit.
- 2.- Nire ustez, bi ume da egokiak.
- 3.- Bai.
- 4.- Noski.
- 5.- Elgoibarren.
- 6.- Momentuz ez.
- 7.- Hala izatea espero dut.
- 8.- Ezer ere ez.
- 9.- Ahal dudanean.




*Unai Goikoetxea*

- 1.- Ez daukat argi.
- 2.- Birekin, mutila eta neska.
- 3.- Dudarik gabe.
- 4.- Betidanik pentsatu izan dut.
- 5.- Elgoibarren.
- 6.- Gauza garrantzitsu bat asmatu.
- 7.- Hori uste dut behintzat.
- 8.- Etxe moderno bat nahiko nuke.
- 9.- 25-26 urterekin.

## Denbora-Pasak

### Aurki itzazu zazpi ezberdintasunak



laguntzaileak:

babesleak:



Debako Udala



### Enaut Viñaras



- 1.- Mekanika.
- 2.- Ez.
- 3.- Noski.
- 4.- Ez.
- 5.- Zumaiian.
- 6.- Ezer ere ez.
- 7.- Bai.
- 8.- Ezer ez.
- 9.- 20 urterekin gutxi gorabehera.

### Maria Faces



- 1.- Ez dakit.
- 2.- Bai, bi ume da egokiena.
- 3.- Bai, baina ez nago seguru.
- 4.- Noski.
- 5.- Atzerrian.
- 6.- Leku ezberdinetara bidaiatu.
- 7.- Denekin ez.
- 8.- Jendearekin irekiagoa izan nahiko nuke.
- 9.- 24 urterekin gutxi gorabehera.

### Galder Gorroño



- 1.- Gorputz Hezkuntza.
- 2.- Noski, bi umerekin.
- 3.- Bai.
- 4.- Ezta pentsatu ere.
- 5.- Elgoibarren.
- 6.- Ez.
- 7.- Horrela izatea espero dut.
- 8.- Ez nuke ezer aldatuko.
- 9.- Ahalik eta azkarren.

### Maidor Gorosabel



- 1.- Ez dut horretan pentsatu oraindik.
- 2.- Bai, hiru ume nahiko nituzke.
- 3.- Hasiera batean bai.
- 4.- Bai.
- 5.- Debatik gertu.
- 6.- Urte bat kanpoan ikasi nahi dut.
- 7.- Gehienekin bai.
- 8.- Ez nuke ezer aldatuko.
- 9.- Momentua iristen denean.

### Isoken Ebowe



- 1.- Psikiatria.
- 2.- Ez nuke familiarik edukiko.
- 3.- Ezta pentsatu ere.
- 4.- Ez.
- 5.- Hiri handiren batean.
- 6.- Japoniara bidaiatu.
- 7.- Zergatik ez?
- 8.- Etxea.
- 9.- 16 urterekin nahiko nuke.

## Sudokua

5	3			7				
6			1	9	5			
	9	8						6
8				6				3
4			8		3			1
7				2				6
	6					2	8	
			4	1	9			5
				8			7	9

## Txistea

Neska batek zera esan dio amari:

-Ama, badakizu? Nire idazlanak zeharo hunkitu du irakaslea!

Eta amak zera erantzun dio:

-Benetan diozu?

-Bai, horixe! Negargarria dela eta pena ematen duela esan dit irakasleak!



### Prentsa talerra 2017-2018

Goretti Unanue, Lorena Ladera, Elene Molina, Paula Del Olmo, Kimetz Etxabe, Enaitz Goikoetxea, Unax Arrizabalaga, Itziar Egaña, Maria Mendoza, Naroa Etxeberria, Alaitz Albizu eta Unax Urteaga.

Koordinatzailea: Tomas Ramos

# AGENDA

## URRIAK 27, OSTIRALA

-19:30. **Azken ostirala.** Euskal preso eta iheslari politikoan eskubideen aldeko elkarretaratzea, plazan.

## URRIAK 27-29

-**Deba-Reus Topaketa.** Informazio gehiagorako, jo aldizkari honetako 7. orrialdera.

## URRIAK 29, IGANDEA

-8:30. **Mendi irteera,** Burdin Kurutz M.T. eta Luzaro ikastetxeak antolatuta. Gorbea.

-**Ipuin kontaketak.** Agirre jauregiko ispiluen gelan. 17:00etan: 3-7 urteko haurrentzat/18:00etan 7-12 urtekoentzat.

-18:30. "**Pedaló**" filmaren emanaldia, Kultur Elkartearen (aurrez Borbor garagardo dastaketa).

## AZAROAK 1, ASTEAZKENA

-**Itziarko peria.** Goizetik hasita, Itziarko poligonoan.

## AZAROAK 4, LARUNBATA

-20:30. **Debasket Saskibaloia Klubak** eta **Enbata Laranjak** egun osoko egitaraua prestatu dute.

Informazio gehiagorako, jo aldizkari honetako 12. orrialdera.

## AZAROAK 5, IGANDEA

-11:00. **V. Manuel Mateos Memoria** (modalitate mistoa), Deba Xtreme Kirol Taldeak antolatuta. Luzera: 6,7 km. Izen-emateak: [www.herrikrossa.com](http://www.herrikrossa.com).

## AZAROAK 7, ASTEARTEA

-18:00. **Xabier Mendiarez** kirolpraktikoak hitzaldia eskainiko du Agirre jauregiko ispiluen gelan (herritar guztiei zuzendua, doan).

## AZAROAK 18, LARUNBATA

-**Emakumea eta Kartzelaren** inguruko jardunaldia, Agirre jauregiko ispiluen gelan. Debako Talde Feministak antolatuta.

## AZAROAK 19, IGANDEA

-**Ipuin kontaketak.** Agirre jauregiko ispiluen gelan. 17:00etan: 3-7 urteko haurrentzat/18:00etan 7-12 urtekoentzat.

## XII. Tene Mujika Beka

Abian jarraitzen du Tene Mujika beka. Debako Udalak egin du deialdia, Elkar argitaletxearen laguntzarekin, Euskal Herriko historia hurbilaren ezagutza zabaldu eta gure literatura aberasteko helburuarekin. Lanak 2017ko abenduaren 11 baino lehen [artxiboa@deba.eus](mailto:artxiboa@deba.eus) helbidera bidali beharko dira. Informazio gehiagorako: [www.deba.eus](http://www.deba.eus).

## Animadeba Gortina Lehiaketa

Gortina lehiaketaren IX. edizioa antolatuta du Debako Udalak eta lan saritua Animadeba 2018 animazio zinema jaialdia iragartzeko erabiliko da. Lanak aurkezteko epea abenduaren 15ean amaituko da. Informazio gehiagorako jo Debako Udaleko Kultura Sailera.

## Ikastaroak KZgunean

KZguneak arratsaldeko ordutegia izango du azaroan (16:00-20:00). Hainbat ikastaro eskainiko dira: software libre, Google Apps, sare sozialak 2.0, oinarrizko internet... Urruneko formazioa ere eskaintzen du. Informazio gehiagorako: 943 02 36 29 edo [www.kzgunea.eus](http://www.kzgunea.eus).

## ZAINZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

Zalduegi: **azaroak 10, 11, 12, 20, 21, 22, 23.**

Burgoa Zuazo: **urriak 27, 28, 29.**  
**azaroak 6, 7, 8, 9.**

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

## DEBAKO BOTIKAK

**ZALDUEGI: 669 262 201**  
**BURGOA ZUAZO: 667 338 890**  
Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: azaroak 11 eta 18

BURGOA ZUAZO: urriak 28 eta azaroak 4

9:30 - 13:00



**JOXEAN GALDONA AIZPURUA**  
HORTZ-SENDAGILEA  
Odontologia orokorra,  
kirurgiak eta inplanteak  
Hondartza Kalea, 20 - behea  
Tel.: 943 192 819  
20820 Deba



**RAIKETAK S.L.**  
**SAGARMIÑA**  
Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 192 249  
Mug.: 618 214 282  
sagarmina@sagarmina.com  
www.sagarmina.com



**haizea**  
estetika  
Tlf. 943 029 607  
Iturkale 22, 1 eskubia  
sarrera Zesterokua plazatik



**Uzuri**  
optika audio  
[www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)

**ZURE ENTZUMENA ZAINTZEN**  
Ostolaza, 7  
20820 DEBA  
Tel: 943192192

RPS: 183/12



**Argazkilaria**  
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: [andersalegi@gmail.com](mailto:andersalegi@gmail.com)

Tlf: 685 703 843



MARIJE CASTRO IRIBAREN

MASAJISTA

- Masaje terapeutikoak
- Kiroletako masajeak
- Masaje lasaigarriak
- Manipulazio txinatarrak

**25 URTEKO ESPERIENTZIA**

Tel.: 677 557 615

**DEBA**

**Mikel**

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206  
Tel./faxa: 943 191 774  
Hondartza, 10 - behea  
**20820 DEBA (Gipuzkoa)**  
[mikeliturgintza@euskalnet.net](mailto:mikeliturgintza@euskalnet.net)  
[www.mikeliturgintza.com](http://www.mikeliturgintza.com)

**A D**

**ASESORIA DEBA C.B.**

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617  
Edurne: 669 895 619

[asesoriadeba@asesoriadeba.com](mailto:asesoriadeba@asesoriadeba.com)  
[www.asesoriadeba.com](http://www.asesoriadeba.com)

HONDARTZA, 2 - BEHEA Tel.: 943 192 127  
20820 DEBA (GIPUZKOA) Fax: 943 192 482

**atari**

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA  
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA  
Tel: 943192263  
[www.atariadeba.com](http://www.atariadeba.com)

**Lizaso**  
Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21  
Tlfnoa: 943 19 27 29



Jari zure publizitatea  
Berriketan aldizkarian!

**Zuhatzza**

943 191 383  
[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)



**sasoi**iko

ekoðenda,  
dieta, dietetika,  
belardenda

ZERBITZUAK:

- \* Fisioterapia: tekarterapia (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- \* Gimnasia hipopresiboak
- \* Dietista
- \* Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 [sasoiiko@hotmail.com](mailto:sasoiiko@hotmail.com)

**Bordatxo**  
JATETXEA

Zesterokua Plaza  
Tel.: 943 029 376  
Bazkariak: 13:00 / 16:00  
Aftariak: 20:00 / 23:00

BEREZITASUNA PARRILAN:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater konbinatuak - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak

**50 URTE**  
**BURU - ZURI**  
Taberna

- Ofartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23  
Tel.: 943 191 034  
20820 DEBA



kutxabank  
hemen  
eta orain **k**

**Hazitik**  
ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA  
telf.: 943 02 99 63  
e-mail: [hazitik@gmail.com](mailto:hazitik@gmail.com)



**Calbeton**

JATETXEA

Agustín  
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera  
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

**L.A.**

**LARRAMENDI ANAIK, S.L.**

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Mobila: 670411786  
Mobila: 607453357  
e-mail: [larranaik@gmail.com](mailto:larranaik@gmail.com)

ARTZABAL AUZOA  
20820 DEBA (Gipuzkoa)



# MINTZA LAGUNA

HARTU, EMAN, ERAGIN.

**IZEN EMATEA:** URRIAN ETA AZAROAN

<https://labur.eus/Zuhatza>

**INFORMAZIOA:** Zuhatza Euskara Elkarte (Ifar kalea, 12 behea). 943 19 13 83

Sustatzaileak



Babesleak

